


ARRAUTZA: MARKATZEA ETA ETIKETATZEA



ARRAUTZA oinarritzkoa da gure dietan. Horregatik, **jatorriaren kontrola** eta **ekoizteko modua** ezinbestekoak dira kontsumitzaileak elikagai hau erostean berme handiagoa izateko.

Arrautza bakoitzaren **oskolan dagoen markatzearen** bitartez, oinarritzko informazioa lortzen dugu. **Etiketak**, berriz, produktuaren informazio zehatzagoa ematen digu.

MARKATZEA



Arrautza bakoitzean markatutako kodeak hauxe adierazten digu:

- **Arrautzatarako oiloen hazkuntza mota.** Otik 3ra bitarteko zenbakiak ditu:
0 ekoizpen ekologikoko oiloetarako.
1 landa oiloetarako.
2 lurrean hazitako oiloetarako.
3 kaioletan hazitako oiloetarako.

— **EBko jatorrizko Estatua (ES: Espainia)**

— **Establezimenduaren identifikazioa.** Digtu ezberdinek osatzen dute: lehenengo biak, lurralde historikoaren kodea; ondorengo hirurak, udalerraren kodea; eta azken bi digituak, ekoizlearen kodea. Horrez gain, establezimendu barruko nabe edo eraikin bakoitzeko letra larri bat gehi daiteke.

— Modu gehigarrian jarri daiteke zein den lehentasunez kontsumitzeko eguna, eta abar.

ETIKETATZEA

Produktua errazago identifikatzeko, etiketak edo ontziak hurrengo informazioa izan behar du:

- **Lehentasunez kontsumitzeko eguna** ee/hh formatuan.
- **Kontserbatzeko aholkua.**
- **Ale kopurua**, ez da derrigorrezkoa kanpotik zenbatu ahal badira.
- **Klasea**, pisuaren arabera: oso handiak edo XL (73 g edo gehiago), handiak edo L (63-73 g), ertainak edo M (53-63 g) eta txikiak edo S (53 g baino gutxiago).
- **Kategoria.** 'A' da gizakiak zuzenean kontsumitzeko arrautzen kategoria.
- **Izendapena.** Arrautz freskoak errun direnetik 28 eguneko epean kontsumitu behar dira. Extra fresko kalitatearekin markatu daitezke errun direnetik gehienez bederatziguneko epean.
- **Oiloak hazteko modua:** landakoak, lurrekoak, kaioletakoak edo ekologikoak.
- Arrautzak ontziratu edo merkaturatu dituen **enpresaren izena.**
- Baimendutako **sailkapen-zentroaren kodea.**

ARRAUTZ FRESKOAK **KATEGORIA** A

Lehentasunez kontsumitu **20/06** baino lehen

12 arrautza

M

Erositakoan hozkailuan gorde

Enpresa SL
Kalea 11
Herria (Probintzia)

Baimendutako sailkapen-zentroa
ES1234567

Kaioletako oiloen arrautzak